

Ezkerra joko kanpo Frantzian

Mamu bat dabil Europan barrena, eskuin muturraren mamua. Ez da Frantziako arazoa soilik, oro har Europako herrialde askotan zabaltzen ari den fenomeno da. Ezker-rra joko kanpo dago. Klase apalek eta globalizazio kapitalistarengatik jipoi-tuek geroz eta babes handiagoa ematen diote eskuin muturrari. Fronte Nazionalak (FN), Europako Parlamenturako hauteskundeetan bezala, Frantziako erregio hauteskundeak irabazi ditu lehenengo itzulian. *Gauche divine* guztia asaldatuta dago. Nola da posible hainbeste intolerantzia?

Globalizazioak desberdintasunen hazkundera ekarri du. Pobrezia pairatzen dutenentzat krisia ez da behin-behinekoa, bizimodu bat baizik. Aldiz, klase ertain-altuek eta ongizate estatuaren arrastoetako enplegu egonkor eta ondo ordainduak dituzten langileek ez dute krisiaren gordintasun osoa nabaritu. Ez dira gutxi asteburu bat Berlinen, zubi bat New Yorken eta oporrak Malaysian igarotzen dituztenak. Familia bakarreko etxebizitzetan eta auzo *cool*etako *loft*etan ez da ohikoa zure bizilagunek goizeko ordu bietan musika ozen jartzea. Hori bai multikulturalismo tolerantzia praktikatzear harro daude, urrutitik noski. Burgesturiko ezkerrentzat galdutako borroka omen da neoliberalismoari oldartzea, eta tira, berauei ez zaie hain gaizki joan, horregatik orain balore postmaterialista eta postmodernoetan sostengatzen dute ezkerriar ideologia. Ildo horretan, aniztasuna asko maite dute beraien eguneroko bizitzan espazio txikia okupatzen duen artean.

Esate baterako, unibertsitateko ikerlari edo enpresako teknikari etorkinekin duten harremana oso horizontala da, izan ere, etorkinen artean ere klaseak daude. Berriz, langile klaseko etorkin familiak auzo txiroetan eta



Asier Blas

EHUKO IRAKASLEA

@AsierBlas

Burgesturiko ezkerrentzat galdutako borroka omen da neoliberalismoari oldartzea, eta tira, berauei ez zaie hain gaizki joan, horregatik orain balore postmaterialista eta postmodernoetan sostengatzen dute ezkerriar ideologia. Ildo horretan, aniztasuna asko maite dute beraien eguneroko bizitzan espazio txikia okupatzen duen artean

bertako eskola publikoetan daude, urrun. Hori bai, burgesturiko ezker-irmoki kritikatuak du etorkinekin –diru laguntzengatik eta lanarengatik– lehiatzen diren beste langileen “kultura eta tolerantzia falta”. Urruti gelditzen zaie Marxek azaldutako ideia sinplea: langabetuak (eta orain etorkinak ere bai) dira burgesiaren ejertzitza eskulana-ren prezioa merkatzeko. Urrun daude errealitate horretatik, eta beraz, Marine Le Peni botoa ematen dietenei arrazista deitzen diete mespretxuz.

Eskualdez eskualde, Frantziako mapari begiratuta FNren indarrak korrelazio positiboa azaltzen du desberdintasun sozialekin, geroz eta pobrezia eta langabezia gehiago, hauteskundeetan orduan eta pisu handiagoa du FNk. Eskuin muturra langile, langabetu eta gazteen artean gain ordezkatuta dagoen artean, klase ertain-altuaren artean nabarmen dago azpi ordezkatua. Horregatik, Fronte Nazionalaren demonizazio sinpleak fenomenoak elikatzen du. Alde batetik, pentsamendu bakarra irmotzeko balio du: denok batu behar dugu mamuaren kontra, eta beraz, ezkerrek apo batzuk (asko) irentsi beharko ditu mamuari aurre egiteko. Bestalde, gauzak aldatzeko alternatiba bakar gisa FN geratzen da, egungo egoera sozioekonomikoari aurre egiteko pentsamendu kritikoa monopolizatuz.

Bitartean, alderdi arruntek belizismoa besarkatu eta FNren segurtasun agenda egikaritu egiten dute. Ezkerrek berriz, giza eskubideen eta tolerantziaren diskurtsoarekin saihestu egiten du FNren igoeraren atzean dagoen klase arazoa seinatzea. FN biluzteko modurik eraginkorrena ezkerretik subiranotasuna berreskuratzeko proposamenak egitea da, aberastasunaren birbanaketaren beharra azpimarratuz eta antinperialismoaren eta bakezaletasunaren banderak berreskuratuz. ■